

## EUSKO JAURLARITZA

### LAN ETA JUSTIZIA SAILA

Lan eta Gizarte Segurantzako  
Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

*EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkaritza, Ojmar, S.A. enpresaren hitzarmen kolektiboaren erregistro, gordailu eta argitarapena agintzen duena (20100402012013 kodea).*

#### AURREKARIAK

*Lehenengoa.* 2020ko martxoaren 3an, enpresako zuzendaritzak eta langileen ordezkariek sinatu zuten aipatutako hitzarmen kolektiboa.

*Bigarrena.* 2021eko abuztuaren 2an, aurkeztu zen Lurralde Ordezkaritza honetan, adierazitako hitzarmenaren erregistro, gordailu eta argitalpen eskaera.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

*Lehenengoa.* Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskuduntza, lan agintaritzak honi dagokio, honako arautegiaren arabera: Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 14.1.g artikulua (2021-01-29ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*); urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretua (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua (2010-6-12ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzkoak.

*Bigarrena.* Sinatutako hitzarmen kolektiboak aurretik aipatutako Langileen Estatutuaren Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak betetzen ditu.

Honen ondorioz,

#### EBATZI DUT

*Lehenengoa.* Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko eta gordailutzeko, eta aldeei jakinarazteko agindua ematea.

*Bigarrena.* Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Donostia, 2021eko irailaren 1a.—Ramón Lertxundi Aranguena, lurralde ordezkaritza. (5885)

*Ojmar, S.A. enpresaren 2020-2021-2022 hitzarmen kolektiboa.*

#### I. KAPITULUA

1. artikulua. Lurralde-eremua.

Hitzarmen Kolektibo hau Elgoibarko lantokian aplikatu behar da.

## GOBIERNO VASCO

### DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA

Delegación Territorial de Trabajo y  
Seguridad Social de Gipuzkoa

*RESOLUCIÓN del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del convenio colectivo de Ojmar, S.A. (código 20100402012013).*

#### ANTECEDENTES

*Primero.* El día 3 de marzo de 2020, se suscribió el convenio citado por la dirección de empresa y la representación de los trabajadores.

*Segundo.* El día 2 de agosto de 2021, se presentó en esta Delegación Territorial solicitud de registro, depósito y publicación del referido convenio.

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

*Primero.* La competencia prevista en el art. 90.2 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 14.1.g del Decreto 7/2021, de 19 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 29-01-2021) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Trabajo y Empleo, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-2-2011) y con el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 12-6-2010) sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos.

*Segundo.* El convenio colectivo ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

#### RESUELVO

*Primero.* Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios y Acuerdos Colectivos, con notificación a las partes.

*Segundo.* Disponer su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 1 de septiembre de 2021.—El delegado territorial, Ramón Lertxundi Aranguena. (5885)

*Convenio colectivo de la empresa Ojmar S.A 2020-2021-2022.*

#### CAPÍTULO I

Artículo 1.º *Ámbito territorial.*

El presente Convenio Colectivo es de aplicación al centro de trabajo de Elgoibar.

**2. artikulua. Funtzio-eremua eta langile-eremua.**

Hitzarmen Kolektibo honek Ojmar, S.A. enpresa zein bertako langileak izango ditu eraginpean.

**3. artikulua. Indarraldia eta iraupena.**

Hitzarmen honek hiru urteko indarraldia izango du. 2020ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, ondorio guztietarako, eta 2022ko abenduaren 31n amaituko da.

2022ko azaroaren 1etik aurrera, salatutzat joko da automatikoki, eta egun horretatik aurrera hasi ahal izango dira honako hitzarmen hau ordezkaturako duen hitzarmen kolektiborako negoziazioak. Akordio espresurik lortzen ez den bitartean, hitzarmenaren eduki osoak aurreraeragin mugagabea izango du, hurrengo akordioa erdietsi arte.

Negoiazio Mahaiko sindikatu-ordezkaritzaren osaera zehazteko, azkeneko hauteskundearen emaitzak hartuko dira kontuan.

**4. artikulua. Xurgapena eta konpentsazioa.**

Hitzarmen honetan ezarritako baldintza ekonomikoak eta lan-jardunaldiari buruzkoak lehendik dauden era guztietako hobekuntzekin xurgatu eta konpentsatu ahal izango dira, Hitzarmen honetan espresuki zehazten direnak izan ezik.

**5. artikulua. Hitzarmenaren batasuna.**

**Bat.** Hitzarmen honetan bai Biltzarretarako bai Langileen Ordezkarientzako edo Enpresa Batzordeko kideentzako edo Ordezkaritza Sindikalentzako ezarri diren lan-jardunaldiek, urteko oporrek eta ordaindutako orduak osotasun bakar bat eta zatiezina osatzen dute urteko zenbaketan. Beraz, ezin izango dira barka aztertu.

Ondorioz, Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean ebazpen administratibo edo juridikoren baten ondorioz gai hauekoren bat aldatzen bada, sortutako aldea ezarritako legezko gutxienezko buruz gainerako gaitan itundu diren hobekuntzekin xurgatu eta konpentsatu dela ulertuko da.

**Bi.** Itundutako baldintzen batasun eta zatiezintasun printzipioa ezarrita, Lan Agintaritzak berezkoak dituen ahalmenak erabiliz Hitzarmen honetan biltzen den itunetako bat onesten ez badu, honek eraginkortasun praktikoa galduko du, Hitzarmena bere osotasunean berriz aztertu beharko delarik.

**6. artikulua. Baldintzarik onuragarrienak.**

Enpresek ezarri dituzten Hitzarmen honetan zehazten diren baldintzak baino baldintza onuragarriagoak, oro har, gorde egingo dira; finkatzen den soldata-politika ezartzeak ez ditu, beraz, langileak kaltetuko.

**II. KAPITULUA**

**7. artikulua. Lanaldia.**

Hona, gehienez, 2020., 2021 eta 2022. urteetan egingo diren benetako lan-orduak, urteko zenbaketan kalkulaturik:

– Lanaldi zatitua:

Benetako lan-orduak 1.669 izango dira hitzarmena indarrean egongo den urte bakoitzean.

– Lanaldi etengabea eta txanda bi edo gehiagoko lanaldia:

Benetako lan-orduak 1.669 izango dira hitzarmena indarrean egongo den hiru urteetarako.

Lanaldi etengabean gutxienez 15 minutuko atsedena ezarriko da, baina ez da lehen adierazitako benetako lanaldiaren barnean hartuko, eta, horren ondorioz, ez da ordainduko.

**Artículo 2.º Ámbito funcional y personal.**

Este Convenio Colectivo afectará a la empresa Ojmar, S.A, así como a las trabajadoras y trabajadores integrantes de la misma.

**Artículo 3.º Vigencia y duración.**

El presente convenio tendrá una vigencia de tres años. Entrará en vigor a todos los efectos a partir del 1.º de enero de 2020 finalizando el 31 de diciembre de año 2022.

Quedará automáticamente denunciado a partir del 1 de noviembre del año 2022, pudiéndose iniciar desde esa fecha las negociaciones para el Convenio Colectivo que lo sustituya y en tanto no se logre un acuerdo expreso, se mantendrá ultraactivo de manera indefinida todo su contenido, hasta el siguiente acuerdo.

Para determinar la composición de la representación sindical en la Mesa Negociadora se tendrán en cuenta los últimos resultados electorales vigentes.

**Artículo 4.º Absorción y compensación.**

Las condiciones económicas y de jornada fijadas en el presente Convenio son absorbibles y compensables con las mejoras de toda clase que existan con anterioridad, salvo las excepciones que expresamente se determinan en este Convenio.

**Artículo 5.º Unidad de Convenio.**

**Uno.** Lo acordado en este Convenio para jornada de trabajo, vacaciones anuales y horas retribuidas, tanto para Asambleas como para los/as Delegados/as de Personal o miembros de los Comités de Empresa y Delegados/as Sindicales, forman un todo único e indivisible en conjunto y en cómputo anual, y por lo tanto no podrán ser contemplados aisladamente.

En consecuencia, si por cualquier resolución administrativa o jurídica se modificase, durante la vigencia del Convenio, cualquiera de dichos temas, se entenderá absorbida y compensada la diferencia, con las mejoras que, sobre los mínimos legales establecidos, se han pactado en el resto de los temas.

**Dos.** Establecido el principio de unidad e indivisibilidad de las condiciones pactadas, en el supuesto de que la Autoridad Laboral en el ejercicio de las facultades que le son propias no aprobase alguno de los pactos del presente Convenio, éste quedaría sin eficacia práctica, debiendo reconsiderarse el contenido en su totalidad.

**Artículo 6.º Condiciones más beneficiosas.**

Se mantendrán las condiciones más beneficiosas implantadas por la empresa en cuanto aquellas superen, en conjunto, las especificadas en este Convenio, de tal forma que ningún/a trabajador/a pueda verse perjudicado por la implantación de la política salarial que se establezca.

**CAPÍTULO II**

**Artículo 7.º Jornada de trabajo.**

El número máximo de horas de trabajo efectivo, en cómputo anual, para los años 2020, 2021 y 2022 será el siguiente:

– Jornada partida:

Las horas efectivas de trabajo serán de 1.669 para cada uno de los años de vigencia.

– Jornada continuada y jornada a dos o más turnos:

Las horas efectivas de trabajo serán de 1.669 para cada uno de los años de vigencia.

En la jornada continuada se establecerá un descanso diario, de al menos 15 minutos, que no formará parte de las jornadas efectivas anteriormente señaladas y que por tanto no tendrá carácter retribuido.

Txanda bi edo gehiagoko lanaldian, kasu guztietan, atsedenaldiko 15 minutuak benetako lan-denboratzat hartuko dira, eta, beraz, ordaindu egingo dira.

Bestalde, artikulua honetan zehaztutako lanaldiak xurgatu eta konpentsatuko ditu edozein arrazoigatik ezarri diren edota etorkizunean ezar daitezkeen lanaldi-murrizketak, aplikatu daitezkeen legezko xedapenaren maila edonolokoa izanda ere.

#### 8. artikulua. Lan-egutegiak eta-ordutegiak.

Langileen legezko ordezkariekin eta, hala bada, gogokio, ordezkari sindikalekin eztabaidatu ondoren, Enpresako Zuzendaritzak bakarrik ezarri ahal izango ditu lan-egutegiak eta-ordutegiak.

Gipuzkoarako Egutegi Ofiziala argitaratzen denetik hasita eta aurreko atalean aipatutako eztabaidaren ondoren, Enpresako Zuzendaritzak hilabeteko epea izango du langile guztientzako egutegia zehazteko. Egutegiak, gutxienez, lanaldiaren ordutegi-taula eta oporraldi kolektiboaren datak barnebiduko ditu.

Langileen Estatutuko 34.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, itundu da lanaldiaren ehuneko 100 modu erregularrean banatuko dela, eta ezin izango dela banaketa irregularrik egin hitzarmen honetan berariaz xedatutakoa eta, zehazki, hitzarmen honen 9. artikuluan aurreikusitakoa alde batera utzita.

Enpresako Zuzendaritzak lan-egutegiak eta -ordutegiak ezarri eta gero urteko lanaldia aldatzen bada, Enpresako Zuzendaritzak 15 eguneko epea izango du behar diren egokitzapenak egiteko.

Bigarren atalean zehaztutako datatik hilabete natural bat igaro ondoren aurreko pasarteetan aipatutako baldintzetan eta enpresaren ekimen ezagatik ez badira ordutegi-taula eta lan-egutegia eratu, langileek, hurrengo hilabetean, nahi duten egutegia ezar dezakete, urteko gehienezko ordu-kopurua errespetatuz.

– Bulegoetako langileak, fabrikazioko zeharkako langileak eta lanaldi zatituan lan egiten dutenak:

- a) 8:00etan sartu eta 13:00etan irten, eta 15:00etan sartu eta 18:00etan irten.
- b) Ordutegi malguta egiteko aukera, baldintza hauek betez:

Egunean ordu eta erdi bateko malgutasuna gehienez.

Ordutegi honetan nahitaez egon beharko da bulegoan edo instalazioan: 09:00etik 13:00etara eta 15:00etatik 17:30era.

– Txandakako langileak:

- a) Goizeko txanda: 07:00etatik 15:00etara.
- b) Arratsaldeko txanda: 15:00etatik 23:00etara.

– Gaueko txanda: 23:00etatik 07:00etara.

#### 9. artikulua. Orduak erabiltzeko aukera.

Enpleguaren egonkortasuna sustatze aldera, eta, era berean, enpresari merkatuaren premietara moldatzen laguntze aldera, lanaldi arruntaren barruan, Enpresako Zuzendaritzak 2020., 2021. eta 2022. urteetan 65 ordu erabili ahal izango ditu, gehienez, ustekabeko premiei edo produkzio-garai bereziei erantzuteko, entrega-epeak oso zehatzak direnean eta hori ez bete-tzeak, besteak beste, eskaria edo bezeroa galtzea dakarrenean. Bai eta alderantzizko kasuetan ere, hau da, merkatuaren eraginez jarduera gutxitzen denean edo eskaerak urriagoak direnean eta horrek guztiak enpresaren garapen arruntan eragina izan dezakeenean.

En la jornada a dos o más turnos se incluirá en todos los casos 15 minutos de descanso que se computarán como tiempo de trabajo efectivo, y en consecuencia tendrán el carácter de retribuidos.

Por otra parte, la jornada consignada en este artículo absorberá y compensará cualesquiera otras reducciones de jornada que, por cualquier motivo, se hubieran establecido o que se establezcan en lo sucesivo, cualquiera que sea el rango de la disposición legal aplicable.

#### Artículo 8.º Calendarios y horarios de trabajo.

La fijación de los horarios de trabajo y los calendarios laborales será facultad exclusiva de la Dirección de la Empresa, previa intervención de la representación legal del personal y delegados/as sindicales en su caso.

La Dirección de la Empresa, en el plazo de un mes a partir de la publicación del Calendario Oficial para Gipuzkoa, y previa la intervención a que hace referencia el párrafo anterior, señalará el calendario de trabajo para todo el personal, que deberá incluir, al menos, el cuadro horario de la jornada de trabajo y las fechas de disfrute de las vacaciones colectivas.

A los efectos de lo señalado en el artículo 34.2 del Estatuto de los Trabajadores, se acuerda que el 100 % de la jornada se distribuirá de manera regular, no habiendo lugar a distribuciones irregulares de la misma, al margen de lo expresamente dispuesto en el presente convenio y concretamente a lo previsto en el artículo 9 del mismo.

Si la jornada anual sufriese modificaciones una vez fijados por la Dirección de la Empresa los calendarios y horario de trabajo, ésta, en el plazo de 15 días, establecerá los ajustes necesarios en los mismos.

Si transcurrido un mes natural desde la fecha indicada en el párrafo segundo no se hubiese establecido el cuadro horario y calendario laboral en los términos anteriores, por falta de iniciativa de la empresa, el personal tendrá facultad dentro del mes siguiente de fijar el calendario que deseen, respetando el tope horario anual.

– Personal de oficinas e indirectos de fabricación y que trabajen a jornada partida:

- a) Entrada a las 08:00 h y salida a las 13:00 h y entrada a las 15:00 y salida a las 18:00 h.
- b) Posibilidad de flexibilidad horaria con los siguientes requerimientos:

Flexibilidad máxima día de 1,5 hora/día.

Horario de presencia obligatoria en oficina o planta de 09:00 h a 13:00 h y de 15:00 h a 17:30 h.

– Personal trabajo a turnos:

- a) Turno de mañana: 07:00 h a 15:00 h.
- b) Turno de tarde: 15:00 h a 23:00 h.

– Turno de noche: 23:00 h a 07:00 h.

#### Artículo 9.º Disponibilidad de horas.

Con objeto de fomentar la estabilidad del empleo y favorecer al mismo tiempo la necesaria adaptabilidad de la empresa a las necesidades del mercado, dentro de la jornada ordinaria de trabajo, la Dirección de la Empresa podrá disponer de hasta un máximo de 65 horas anuales durante 2020, 2021 y 2022, que podrá utilizar tanto para atender emergencias o períodos punta de la producción, plazos de entrega con márgenes muy estrictos cuyo no cumplimiento pueda implicar la pérdida de pedido o de la clientela etc., como, en caso contrario, en momentos de disminución de la actividad por causas del mercado, cartera de pedidos, que puedan afectar al normal desarrollo de la empresa.

Edonola ere, aurreko atalean aipatutako orduak erabiltzeko aukerak ez du inola ere, enpresak ezarrita duen urteko lanaldia handituko.

Arestian aipatutako orduak erabiltzeko aukeraren ondorioz orduak gehitzeak edo gutxitzeak enpresa osoarengan, bertako sekzioarengan edota langile bakoitzarengan izan dezake eragina.

Aurrean aipatutako agindua derrigorrezkoa izateko nahikoa eta beharrezkoa izango da, Enpresako Zuzendaritzak eta langileen ordezkariak espresuki bestelako erabakirik hartzen ez badute, ondorengo baldintzak betetzea:

1. Eragindakoei eta enpresako langileen ordezkariak hori justifikatzen duten arrazoi idatziak 5 eguneko aurrerapenez jakinaraztea.

2. Orduak erabiltzeko lanordua gehitzea ekartzen duenean, enpresako egutegietan lanegun bezala zehaztuta dauden lanaldia 9 ordu arte gehituz egingo da.

Enpresako Zuzendaritzak, aparteko kasuetan, jardura beste egun batzuetan betetzea agindu dezake, betiere igandeak, jaiegunak, zubiak eta oporrak salbuetsiz, eta egun horiek ez dira urtean 9 baino gehiago izango. Honelakoetan, lanaldia ez da 6 ordu eta erdi baino gutxiagokoa izango, ezta 9 ordu baino gehiagokoa ere.

Jardura aurreko atalean aipatutako egunetan betetzen duenean, txandakako langileek goizeko edo arratsaldeko txandetan burutuko dute. Lanaldi zatitu edo etengabeko langileek goizeko jardunean soilik erabili ahal izango dituzte ordu horiek eta, betiere, arratsaldeko hiruak baino lehen amaituz.

Egutegiak jasotzen ez dituen egunetan lan egindako orduak atseden-egun osoetan konpentsatuko dira. Horrela, langile bakoitzak urtean bete behar dituen lanegunak ez dira gehituko.

3. Orduak erabiltzeko lanordua gutxitzea ekartzen duenean, egutegiaren arabera bete beharreko jardunak erabat gutxituz (gehienez ere bost egun arte) edo zatika gutxituz (gehienez bi ordu egunean) egingo da.

Lan-egutegiaren arabera lan egin beharreko egunetako lanaldia 9 ordu arte luzatuz konpentsatuko da hori, edo bestelako egunetan, igande, jaiegun, zubi eta oporrak salbuetsiz, baina egun horiek ez dira urtean 9 baino gehiago izango. Langile bakoitzak urtean lanean bete behar dituen egunak ez dira inola ere gehituko.

Erabiltzeko orduak ez dira ekonomikoki konpentsatuko, urte natural bakoitzaren barruan denbora libre hartuz baizik.

Adostutako konpentsatutako orduak alde batera utzita, enpresak, 30 egun jarraiko epe batez, ezin izango ditu erabili txandakako lanaldi handiagoa eta txikiagoa.

Enpresak agintzen duenean lanaldi handiagoa edo txikiagoa bete beharren kalterik gabe, Enpresako Zuzendaritzak eta eragindako langileek jakinarazi zen datatik hasita 30 eguneko epean erabakiko dute artikulu honetan aipatutako orduen konpentsazioa gozatzeko edota dagozkien orduak betetzeko era eta data. Erabaki hori enpresako langileen ordezkariak jakinaraziko zaie.

Epe horretan ez bada adostasunik lortu eta bi alderdiek ez badute gaia arbitrajeaz ebaztea erabaki, enpresak eta eraginda-

En cualquier caso, la utilización de las horas de disponibilidad a que se hace referencia en el párrafo anterior, no podrá implicar ningún incremento en la jornada anual que tenga establecida la empresa.

El aumento o disminución de las horas como consecuencia de la utilización de las horas de disponibilidad arriba mencionadas, podrá afectar a la totalidad de la empresa, secciones de la misma o a trabajadores/as individualmente.

Para que sea de obligado cumplimiento la orden dada para atender lo anteriormente citado, será suficiente y necesario, salvo acuerdo en cualquier otro sentido entre la Dirección de la empresa y la representación del personal, que se cumplan los siguientes requisitos:

1. Preaviso de 5 días al personal afectado y a la representación del personal en la empresa, con información por escrito de las razones que lo justifican.

2. Cuando la utilización de la disponibilidad horaria consista en el aumento de horas de trabajo, éste se efectuará incrementando hasta 9 horas la jornada de los días que figuren como de trabajo en los correspondientes calendarios de la empresa.

La Dirección de la Empresa podrá ordenar el trabajo en otros días distintos, excluidos domingos, festivos, puentes y vacaciones, pero estos días no podrán exceder de 4 al año. En estos casos, la jornada no podrá ser inferior a 6,30 horas ni superior a 9.

Cuando el trabajo se efectúe en los días indicados en el párrafo anterior, se tendrá que realizar en turnos de mañana o tarde para los/as trabajadores/as de relevos. Para el personal de jornada partida o continuada la utilización sólo podrá efectuarse en jornadas de mañana, debiendo finalizar ésta antes de las 15 horas.

La compensación de aquellas horas trabajadas en jornadas distintas a las que inicialmente recoge el calendario, deberán efectuarse en días completos de descanso, de forma que los días de trabajo, que individualmente corresponda trabajar anualmente a cada trabajador/a, no se vean incrementados.

3. Cuando la utilización de la disponibilidad horaria consista en la disminución de horas, ésta se efectuará reduciendo en todo (hasta un máximo de cinco días) o en parte (como máximo de hasta dos horas diarias) la jornada de los días que por calendario corresponda trabajar.

Su compensación se efectuará aumentando hasta 9 horas la jornada de los días que por calendario corresponda trabajar o, en otros días distintos, excluidos domingos, festivos, puentes y vacaciones, pero éstos no podrán exceder de 9 al año, sin que en ningún caso pueda verse incrementado el número de días de trabajo que corresponda trabajar anualmente a cada trabajador/a.

Las horas de disponibilidad no podrán ser compensadas económicamente sino que se compensarán en tiempo libre dentro del año natural.

Con independencia de las horas de compensación acordadas, la empresa en un período de 30 días consecutivos no podrá utilizar alternativamente períodos de aumento y disminución de la jornada de trabajo.

Sin perjuicio de la obligación de realizar una jornada superior o inferior, en el momento indicado por la empresa, las horas a que se hace referencia en este artículo, la Dirección de la misma y el personal afectado, acordarán en un plazo de 30 días a contar desde la fecha de preaviso, la forma y fecha del disfrute compensatorio o realización de las horas que correspondan. Dicho acuerdo será comunicado a la representación del personal en la empresa.

Concluido este plazo sin acuerdo, y si ambas partes no han acordado su sometimiento a arbitraje, en el plazo improrrogable



ko langileek 15 eguneko epe luzaezina izango dute orduak gozatzeko edo betetzeko erabakia % 50ean hartzeko.

Konpentsazio-datei dagokienez, langileei ezartzea dagokien % 50a zehazterakoan ezin izango dute produkzioz gariareneko urte-sasoietan eragin dezaketen datarik hartu, ezta enpresak jada jakinarazita dituen puntako aldietan ere.

Era berean, ordu horiek kolektiboki gozatzeko edo betetzeko eska dezake enpresak baldin eta kolektiboki erabili baziren; epealdi hori opor kolektiboek ez metatzea ere eska dezake.

Artikulu honetan aipatutako aukera erabili ahal izateko, Zuzendaritzak Enpresa Batzordeari jakinarazi beharko dio, eta horretarako egon diren arrazoen berri eman; halaber, zenbat langileri eragiten dion eta zenbatekoa den erabilitako edo erabili beharreko ordu globalen kopurua adierazi beharko dio.

Artikulu hau interpretatzean zalantza edo desadostasunik sortuko balitz, Zuzendaritzaren eta Enpresa Batzordearen artean adostuta ebatzi beharko da.

#### 10. artikulua. Oporrak.

2020., 2021. eta 2022. urteetarako 30 egun naturaleko opor ordainduak izango dituzte; derrigorrez eta bakarrik 26 lanegun izango direlarik.

Oporren eraginetarako, larunbatak lanegun osotzat hartuko dira.

Enpresaren beharrak direla-eta urteko lan-egutegian ezarritako opor kolektiboak gozatzeko data aldatu egiten bada, eta, ondorioz, lantokia ixten bada, langileek opor-egun bat gehiago hartzeko eskubidea izango dute.

OIT erakundeko 132. Hitzarmenean ezarritakoa betez, langilearen borondatez kanpoko arrazoiengatik, hala nola, istripua, gaixotasuna eta amatasunagatik, lanera joan gabeko egunak lan efektiboan emandako denboratzat hartuko dira oporrek zenbatu eta gozatzearan eraginetarako.

Oporretarako ezarri den datan enpresako plantillan urtebete lan efektiboak bete ez duten langileek Zerbitzuan emandako denboraren arabera dagozkien opor-egunak gozatu dituzte, eta lanean jardun behar duten egunetan iraingarriak ez diren eta euren lanbide-heziketaren kalterik eragiten ez duten zereginak bete ahal izango dituzte. Bitarte horretan langileari zeregin efektiboak eman gabe ixten bada lantegia, zegozkion zeregin guztien ordainsaria jasoko du langile horrek.

Langile orok, enpresa uzterakoan, dagokion oporren zenbateko proportzionala jasoko du. Langilea hiltzen bada, zenbateko hori bere eskubidedunek jasoko dute.

Oporrak hartzeko garaiari buruzko desadostasunaz jurisdikzio eskudunak hartzen duen erabakiaren kalterik gabe, langileak jarraituko bi lan-aste gozatzeko eskubidea izango du betiere.

Oporraldi kolektiboaren hasieran langilea aldi baterako ezintasun-egoeran dagoen kasuetan, oporraldia etenda geratuko da aldi baterako ezintasun-egoera horrek dirauen artean.

Ondore horietarako, agiri hau sinatu dutenek adostu dute Langileen Estatutuaren 38.3 artikulua hirugarren atalean ezarritakoaren arabera bilduko eta aplikatuko dela artikulu hau. Itundutako lan-egutegian ezarritakoaren ondoren ordaindutako urteko oporrak izateko eskubidea onartzen da, baldin eta ez bada dira hamazortzi hilabete baino gehiago pasatu oporrak hartzeko eskubidea sortutako urtearen amaieraz geroztik, eta esleutako egunen aurretik langilea aldi baterako ezintasun-egoeran jartzen bada.

de 15 días, la empresa y los/as trabajadores/as afectados/as señalarán, cada uno en un 50 %, la forma y tiempo de su disfrute o realización.

Para la fijación del 50 % que corresponda al personal, no podrán utilizarse para disfrute compensatorio las fechas que incidan en períodos estacionales de alta producción o períodos punta conocidos en ese momento, que a tal efecto sean señalados por la empresa.

Asimismo, la empresa podrá exigir que dicho disfrute o realización sea colectivo cuando la utilización de las horas se realizó de dicha forma, y que no se acumule a las vacaciones colectivas.

Para hacer uso de la facultad que se recoge en el presente artículo La Dirección deberá ponerlo en conocimiento del Comité de Empresa informando de las razones que lo han motivado e indicando número de personas afectadas y número de horas globales utilizadas o a utilizar.

Las posibles dudas o discrepancias que pudieran surgir en la interpretación de este artículo, se resolverán mediante acuerdo entre La Dirección y el Comité de Empresa.

#### Artículo 10.º Vacaciones.

Para los años 2020, 2021 y 2022 se retribuirán, en concepto de vacaciones reglamentarias 30 días naturales, debiendo de disfrutarse exclusiva y necesariamente 26 días laborables.

A efectos de vacaciones los sábados se computarán como día laborable completo.

Si por necesidades de la empresa se modifica la fecha de disfrute de las vacaciones colectivas establecidas en el calendario anual, y en consecuencia, el cierre del centro de trabajo, el personal tendrá derecho a disfrutar un día más de vacaciones.

De acuerdo con lo establecido en el Convenio n.º 132 de la OIT, las ausencias al trabajo por maternidad y por motivos independientes a la voluntad del personal, como accidente o enfermedad, serán consideradas como tiempo de trabajo efectivo, a los efectos del cómputo y disfrute de las vacaciones.

El personal que, en la fecha determinada para el disfrute de las vacaciones, no hubieran completado un año efectivo en la plantilla de la empresa disfrutará de un número de días proporcional al tiempo de servicios prestados, pudiendo ser acoplados en los días que hubiesen de trabajar en misiones que no supongan vejación ni menoscabo para su formación profesional. En el supuesto de que durante las mismas cerrase la fábrica sin darle ocupación efectiva, el/a trabajador/a en cuestión percibirá la totalidad de los haberes correspondientes.

Al dejar de pertenecer a la empresa se abonará a todo el personal el importe proporcional de vacaciones que les corresponda. En caso de fallecimiento del personal este importe se satisfará a sus derechohabientes.

Sin perjuicio de que la jurisdicción competente resuelva el posible desacuerdo en el disfrute de vacaciones, el personal tendrá derecho, en todo caso, a disfrutar dos semanas laborales consecutivas.

En los casos en que, al inicio del disfrute del período de vacaciones colectivas, el/a trabajador/a se encuentre en situación de I.T., el período de vacaciones quedará interrumpido por el tiempo en que se mantenga dicha situación de I.T.

A estos efectos las partes signatarias convienen en recoger y aplicar este artículo conforme a lo establecido en el artículo 38.3 párrafo tercero del Estatuto de los Trabajadores, se reconoce el derecho a disfrutar las vacaciones anuales retribuidas en periodo posterior al establecido en el calendario laboral pactado, siempre que no hayan transcurrido más de dieciocho meses a partir del año en que se hubieran originado, si previamente a las fechas asignadas el trabajador/a iniciase situación de incapacidad temporal.

Etendura horri dagozkion opor-egunak Enpresako Zuzendaritzak erabakitzen duenean hartuko dira, interesdunaren eta langileen ordezkarien iritzia jaso ondoren.

Oporraldi kolektiboari ekiteko garaian edo bitartean langilea amatasun-egoeran badago, oporraldia eten egingo da, eta enpresak, langileen ordezkariekin hitz egin ondoren, erabakitzen duen egunetan baliatuko dira etenaldi horri dagozkion egunak.

Langileak lan efektiboko jardun arruntean jasotzen duen soldataren arabera ordainduko zaizkio oporrak, alde batera utzita oporren bitartean lan-ezintasuneko egoeran dagoen. Ohiko zeregin-lanean plusen bat (txanda-, galdaketa-, leunketa- edo gau-plusa) kobratzen duten langileek aurreko hiru hilabeteetan burutu dituzten batezbesteko jardun-egunen arabera jasoko dute ordainsaria. Beraz, aipatutako batezbesteko hori kalkulaterakoan ez dira kontuan izango igande, jaiegun, aparteko haborokin, baja eta abarren ondorioz sortutako ordainsariak.

Egunez eguneko ordainsaria jasotzen duten langileei dago kienez, orain arte indarrean egon denaren arabera ordainduko zaizkie opor-egunak; baita 30 egun natural horietako jaiegun eta igandeak ere.

Oporraldiari dagokion ordainsaria enpresan ohikoan egiten den eran eta datan ordainduko da.

#### 11. artikulua. Aparteko orduak.

Hitzarmen hau izenpetzen dutenek bat egin dute 1999ko urtarrilaren 15ean Confebask eta ELA, CC.OO., UGT eta LAB Zentral Sindikalek aparteko orduak ezabatzeari buruz itundu duten Konfederazioarteko Erabakiarekin. Horren arabera eta akordio hori garatu asmoz:

Honako hau adosten dute:

1. Aparteko orduak betetzeko aukera ezabatuta geratu da, honako artikulua honetako 2. pasartean arautzen diren aparteko kasu berezietan izan ezik.

2. Aparteko izaeraz, eguneko lan jarduna luzatu ahal izan da, honako kasu hauetakoren bat gertatzen denean:

*Lehena.* Halabeharrez; hau da, ezbehar eta kalte bereziak ekiditeko edo konpontzeko premia larria dagoenean.

*Bigarrena.* Behar den aurretiaz aurreikusi ezin diren arrazoiak bitarteko, enpresak bere martxa normalari eusteko eguneko lan jardun arrunta derrigorrez luzatu beharra gertatzen denean. Edozein kasutan ere, gehiegizko lan hori langile berriekin ezin dutela egin arrazoitu beharko da, honako arrazoiren bat dagoela eta:

a) Egin beharreko lan denbora hain laburra izanik, kontratazio berria egitea ezinezkoa izatea.

b) Behar den denboran kontratazio berria egitea materialki ezinezkoa izatea.

c) Enplegurako zerbitzu publikoen lankidetzak eskatu arren, lanpostu jakin horri dagokion kualifikazioa duen langilerik jarri ez dutenean enpresa eskatzailearen esku.

3. Bigarren pasartean aurreikusi diren egoera berezien besean betetzen diren aparteko orduen ordeza, atsedean denbora hartuko da.

Konpentsazioan emango dira ordubete eta 30 minutu lanean lan egindako ordu bakoitzeko eta ordubete eta 40 minutuko igande edo jaiegunean lan egindako ordu bakoitzeko, Hitzarmen Kolektibo honen 2. artikulua azken paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe.

Konpentsazio ekonomikoa honako kasu hauetan bakarrik burutu ahal izango da, ezinbesteko kasuetan eta 2.c) puntuan au-

Los días correspondientes a dicha interrupción se disfrutará en fecha que establezca la Dirección de la empresa, previa intervención del interesado y de la representación del personal.

Si, al inicio o durante el disfrute del período de vacaciones colectivas, la trabajadora se encontrase en situación de Maternidad, aquél quedará interrumpido y los días correspondientes a dicha interrupción se disfrutarán en fecha que establezca la Dirección de la empresa, previa intervención de la representación del personal.

Las vacaciones se cobrarán por el salario que realmente venga percibiendo el/a trabajador/a en jornada ordinaria de día de trabajo, con independencia de que su disfrute coincida con una situación de I.T. El personal que con carácter normal este cobrando cualquiera de los pluses de relevo, fundición, pulimento y nocturnidad, percibirá con arreglo al promedio de actividad en los días de trabajo de los tres meses anteriores; por lo tanto, para el cálculo del referido promedio no se tendrán en cuenta los devengos de los domingos, días festivos, gratificaciones extraordinarias, días de baja, etc.

Para el personal con retribución diaria, los días de vacaciones, aún los festivos y domingos comprendidos entre ellos hasta completar los 30 días naturales, deberán abonarse de acuerdo al sistema retributivo vigente hasta la fecha.

El abono de la retribución de vacaciones se efectuará en la forma y fechas que habitualmente se vengán realizando en la empresa.

#### Artículo 11.º Horas extraordinarias.

Las partes signatarias del presente Convenio se adhieren al Acuerdo Interconfederal sobre supresión de horas extraordinarias suscrito entre Confebask y las Centrales Sindicales ELA, CC.OO., UGT y LAB, con fecha 15 de enero de 1999 y en base al mismo y en su desarrollo:

Acuerdan:

1.º Queda suprimida la posibilidad de realizar horas extraordinarias, salvo en los supuestos excepcionales que se regulan en el punto 2.º del presente artículo.

2.º Con carácter excepcional podrá prolongarse la jornada ordinaria de trabajo cuando concurra alguno de los siguientes casos:

*Primero.* Fuerza mayor, es decir, cuando se trate de prevenir o reparar siniestros y daños extraordinarios y urgentes.

*Segundo.* Cuando, por razones no previsibles con antelación suficiente, la prolongación de la jornada ordinaria resulte imprescindible para el normal funcionamiento de la empresa. Deberá acreditarse, en cualquier caso, que no resulta posible la realización del exceso de trabajo con cargo a nuevo personal por alguna de las siguientes razones:

a) Por tratarse de un tiempo de trabajo tan corto que no haga viable una nueva contratación.

b) Por no ser materialmente posible proceder a nuevas contrataciones en el tiempo requerido.

c) Porque, habiéndose requerido la colaboración de los servicios públicos de empleo, éstos no hayan facilitado a la empresa demandante personal con la cualificación adecuada al puesto correspondiente.

3.º Las horas extraordinarias que se realicen al amparo de las situaciones excepcionales previstas en el punto 2.º) serán compensadas por tiempo de descanso.

La compensación se efectuará a razón de 1 hora y 30 minutos por cada hora trabajada en día laboral y 1 hora y 40 minutos por cada hora trabajada en domingo o festivo, sin perjuicio de lo establecido en el último párrafo del artículo 2.º de este Convenio Colectivo.

Sólo podrá acordarse su compensación económica en los casos de fuerza mayor y en aquellos otros en los que la compen-

rreikusitako egoera dela eta, atsedean denboraz konpentsatzea ezinezkoa gertatzen denean. Kasu horietan, eta Hitzarmeneko 2. artikulua azken pasartearen xedatutakoa baldintzatu gabe, honela ordainduko dira aparteko orduak: % 40 erantsiz, laneguneari burutu direnean; eta % 65 erantsiz, igande edo jaiegunetan burutu direnean.

4. Artikulu honek dioena enpresan aplikatuko bada, alde aurretik akordioak zehaztu beharko dira langileen legezko ordezkarien eta Enpresako Zuzendaritzaren artean. Akordio horien bidez, honako gai hauek arautuko dira:

a) Aparteko orduak ezabatzearen ondorioz sortzen diren aurreikuspenak eta enplegurako konpromisoak, eta antolakuntzan egin beharreko doikuntzak finkatuko dituzte.

b) 2. atalean xedatutakoa aplikatuz lan jarduna luzatzea baimentzen duten aparteko egoerak zehaztuko dituzte.

c) Konpentsazio erregimena; bereziki, lan jarduna luzatzearen ondorioz bakoitzari dagokion atsedean denbora zenbatzearen dagokiona.

d) Enpresako akordioek ezingo dute konpentsazio ekonomikorik ezarri, artikulu honetako 3. pasarteko hirugarren atalean aurreikusi ez diren balizkoetan.

5. Aurreko puntuan aipatutako negoziazio horren ekimena Enpresako Zuzendaritzak edota langileen Legezko Ordezkariak hartu ahal izango du, eta beste aldeak negoziatzera eseri beharko du derrigorrez. Bi aldeetarik batek negoziatzen hasteari uko egiten badiu edota negoziazio horretan akordioa eragozten duten desadostasunak sortzen badira (4.c, atalean izan ezik) bi aldeetako edozeinek Prekon aurreikusitako Gatazkak Ebazteko Prozedurara jo ahal izango du, eta beste aldea horretan parte hartzea behartuta egongo da.

6. Edozein kasutan ere, Langileen Ordezkariak eta Enpresa Batzordeko kideak, baita Ordezkari Sindikalek ere, bidezko denean, hilero-hilero izango dute egindako aparteko orduen berri eta gai horren inguruan hartutako akordioen zein horiek sortarazi zituzten arrazoi berri. Informazio hori, enpresak izenpetuta eta zigilatuta egongo da.

7. Artikulu honetan aparteko orduak buruz erabaki dena, Hitzarmen honetako «Orduak erabiltzeko aukera» izeneko 9. artikuluan xedatutakoa baldintzatu gabe burutuko da.

### III. KAPITULUA

#### 12. artikulua. Baimenak.

Langileek baimen ordainduak izateko eskubidea izango dute, betiere, gutxienez 24 ordu lehenago jakinaraziz, zoritxarra edo ustekabea denean izan ezik, eta, nolana ere, behar bezala justifikatuz. Baimen horiek artikulu honetan ezartzen denari jarraiki hartu eta ordainduko dira.

Lizentziak benetako soldataren arabera ordainduko dira, produktio-primak eta pizgarriak ezaren primak barne.

Halaber, aurrez jakinarazi eta justifikatzeko baldintza berekin, adierazten diren ordaindu gabeko baimenak izango dituzte langileek.

Baimen guztiak, berorien egintza eragilea gertatzen denean hartu behar dira.

Enpresek kasu hauetan emango dituzte baimenak, betiere justifikatuta badaude.

a) Langilearen ezkontzagatik:

– 18 egun naturaleko baimen ordaindua, 10 egun natural gehiagoko ordaindu gabeko baimenaz hedatu ahal izango delarik.

sación por descanso resulte imposible por concurrir la circunstancia prevista en el punto 2.ºc). En estos casos, y sin perjuicio de lo establecido en el último párrafo del artículo 2.º del Convenio, esas horas se abonarán con un recargo del 40 % cuando se trabajen en día laborable y del 65 % cuando lo sean en domingo o festivo.

4.º La aplicación del presente artículo en la empresa requerirá su concreción mediante acuerdos entre la representación legal del personal y la Dirección de ésta, que regularán las siguientes materias:

a) Establecerán las previsiones y compromisos de empleo que se deriven de aquella supresión, así como los ajustes organizativos que la supresión de horas extraordinarias pudiera hacer en su caso necesario.

b) Determinarán de la concurrencia de las situaciones excepcionales en las que, en aplicación del apartado 2.º, se entienda autorizada la prolongación de jornada.

c) Régimen compensatorio, en particular la cuantificación del tiempo de descanso compensatorio de la prolongación de jornada.

d) Los acuerdos de empresa no podrán establecer la compensación económica para supuestos distintos de los contemplados en el tercer párrafo del apartado 3.º de este artículo.

5.º La iniciativa de negociación de lo señalado en el punto anterior podrá ser tomada por la Dirección de la empresa o por la Representación Legal del personal en la misma, estando la otra parte obligada a sentarse a negociar. En el caso de que alguna de las partes se negara a iniciar la negociación o surgieran en la misma discrepancias que impidieran el acuerdo (excepto en el apartado 4.ºc), cualquiera de las partes estará facultada para instar los Procedimientos de Resolución de Conflictos previstos en el Preco, quedando obligada la otra a hacerse parte en los mismos.

6.º En cualquier caso, la Representación del Personal y miembros del Comité de Empresa, así como los/as Delegados/as sindicales, en su caso, serán informados mensualmente de las horas extraordinarias que se hayan efectuado y los acuerdos celebrados al respecto, así como de las causas que lo motivaron. Esta información irá firmada y sellada por la Empresa.

7.º Lo acordado en el presente artículo para las horas extraordinarias lo será sin perjuicio de lo establecido en el artículo 9 del presente Convenio sobre «Disponibilidad de Horas»

### CAPÍTULO III

#### Artículo 12.º Licencias.

Los trabajadores, preavisando con al menos 24 horas de antelación, salvo hecho infortunado y/o imprevisible, y en todos los casos con la debida y suficiente justificación, tendrán derecho a licencias retribuidas que se disfrutarán y abonarán con arreglo a lo que se establece en el presente artículo.

Las licencias retribuidas se abonarán a salario real incluyendo las primas de producción o primas de carencia de incentivo, en su caso.

Igualmente, con las mismas condiciones de preaviso y justificación, los trabajadores podrán disponer de las licencias no retribuidas que se señalan.

Todas las licencias habrán de disfrutarse en el momento de producirse el hecho causante.

Las empresas concederán licencias en los siguientes supuestos, siempre que los mismos sean previamente justificados.

a) Por matrimonio:

– 18 días naturales de licencia. Esta licencia podrá ampliarse hasta un máximo de 10 días naturales más de licencia no retribuida.

Baimen hori, zati batean edo osotasunean, oporraldian ego-  
kituz gero, ezin izango da xurgatu.

b) Seme-alaben jaiotzagatik:

– 3 laneguneko lizentzia; bi behintzat lanegunak izango  
dira; zesarea bidezko erditzearen kasuan 3 lanegun ordaindu  
gehiagoz luzatu ahal izango da. Lizentzia hau bi egunez luzatu  
ahal izango da lekualdaketarik egin behar izatekotan.

Seme-alabak garai aurretik jaiotzeagatik edo, jaio ondoren,  
ospitalean utzi behar izateagatik:

– Amak edo aitak egunean ordubetez utzi ahal izango du la-  
na egoerak dirauen bitartean.

b.1) Biloben jaiotzeagatik:

– 2 lanegun.

c) Gaixotasun larria edo ospitalizazioagatik:

– Ezkontidearena, seme-alabena, aitarena edo amarena (lan-  
gilearekin bizi ez badira ere) eta errain-suhiarena: 3 egun natural,  
eta gehienez ere beste 3 egun hartu ahal izango dira ordaindu ga-  
beko lizentzia gisa. Lizentzia hori bi egunez luzatu ahal izango da  
bidaia egin behar bada.

– Anai-arrebena, bilobena, aitona-amonena, aitagarreba-  
amagarrebarena, koinatu-koinatarena: 2 egun natural; bidaiar-  
ik egin behar izanez gero, gehienez ere beste bi egunez luza  
daitezke.

Gaixotasun larriaren egoerak irauten duen bitartean, langi-  
leak baimena hartzeko data aukeratu ahal izango du, enpresa-  
ren adostasunez. Adostasunik ez badago, baimena hurrenez  
hurreneko egunetan hartu beharko da.

Gaixotasun larriak irauten duenean:

– 3 egun naturaleko bigarren baimen ordaindu bat hartzeko  
eskubidea izango du ezkontide edo seme-alaben kasuan eta 2  
eguneko langilearekin guraso edo seme-alaben kasuan, baldin  
eta lehenengo baimena hartu zenetik elkarren segidako hama-  
bost egun igaro badira. Kasu honetan ezin izango da joan-eto-  
rrien ondoriozko zabalkuntzarik aplikatu.

– Kasu berdinetan eta denbora berdinerako ordaindu gabe-  
ko baimenak hartzeko eskubidea izango du, betiere aurreko bai-  
menetik elkarren segidako hamabost egun igaro badira. Kasu  
honetan ere ez da aplikagarria izango joan-etorrien ondoriozko  
zabalkuntzarik.

Ezkontideari, seme-alabaren bati, aita edo amari, anai-arre-  
ba edo bilobaren bati, aitona edo amonari, aitagarreba edo  
amagarrebari eta ezkon-anaiarreba edo ezkon-semealabaren  
bati egindako ebakuntza kirurgikoagatik, betiere, ospitalizazio-  
rik egon ez arren, etxean geratzera behartzen baditu: 3 egun na-  
tural eta, lekualdaketarik egin behar izatekotan, gehienez beste  
bi egun.

Baimen hau 4 orduko lanaldi erdietan hartu ahal izango da  
baimen-egun naturaletan.

d) Heriotzagatik (gertaera eragilearen hurrengo lanegune-  
tik aurrera):

– Ezkontidearena eta seme-alabena: 5 lanegun; bidaiarik  
egin behar izanez gero, bi egunez luza daiteke.

Aita-amarena, anai-arrebena, bilobena, aitona-amonena, aita-  
garreba-amagarrebarena, koinata-koinatuarena, edo errain-  
suhiarena: 3 lanegun; bidaiarik egin behar izanez gero, bi egunez  
luza daiteke.

